

URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBA ETA TURISMO JASANGARRIA

Lekua:	Busturialdea-Urdaibai (Bizkaia)
Modalitatea:	Ingurumena eta Ikerketa
Helburua:	Busturialdeako eskualdean turismo jasangarria sustatzea eta naturarekin lotzea
Egunak:	Uztailaren 16tik 30era // Uztailaren 30etik abuztuaren 13ra
Adina:	18-26 urte
Plaza-Kopurua:	20 txanda bakoitzean
Mota:	Nazioartekoa
Hizkuntza:	Ingelesa (Ezinbestekoa da ingelesez ondo hitz egitea)

Busturialdeako eskualdea Bizkaiko ekialdean kokaturik dago. Guztira, 20 udalerrrik osatzen dute, eta ezagunenak honako hauek izanda: Bermeo, Elantxobe, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Morgia, Mundaka, etab.

Bere zabalera eta naturaren kontserbazio maila aparta dela eta, Euskadin gehien bisitatzen den gune naturaletako bat da. Nabarmendu behar da eskualde hau UNESCOren Gizadiaren Ondare eta Biosferaren Erreserba (Urdaibaiko Biosferaren Erreserba) izendatu zutela.



Parte-hartzaileen ostatua Gautebiz Arteagan dago, Mundakatik gertu dagoen herri txiki batean. Udal horren eraikinik adiezgarriena Arteagako Dorrea da, XIX. mendean Montijoko Eugeniak Frantziako enperatrizaren aginduz berreraiki zen Erdi Aroko etxe-dorrea. Arteagako Dorretik hurbil Urdaibai Bird Center-a dago, Europa mailan Ikerketa-zentroen eta Ornitologia-museoen artean erreferentzia dena. Urdaibai Bird Center naturaren museo bizia da, jendeak hegaztiez eta horien migrazioez goza dezan.

Informazio gehiago:

Gautegiz Arteagako Udala: <http://www.gautegizarteaga.com/eu-ES/Orrialdeak/default.aspx>

Urdaibai: www.turismourdaibai.com/eu

Urdaibai Bird Center: <http://www.birdcenter.org/>

AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA

Busturialdea-Urdaibaiko eskualdean interes handiko puntu turistikoak aurkitzen dira, besteak beste, Gaztelugatxeko Doniene, Omako Basoa, Gernikako Batzar Etxea. Auzolandegi honetan mundu guztiko gazteek bertako turistekin elkar eragiteko aukera izango dute. Horretarako, boluntarioak interes turistikoko gune nagusietan kokatuko dira, eta inkestak eta elkarriketak egingo dizkiete bertako turistei hizkuntza ezberdinetan (ingeleza, gaztelania, euskara...). Auzolandegiaren parte-hartzaileek inkestetan eta elkarriketetan batutako datuak kudeatuko dituzte turismo-teknikari baten laguntzarekin.



Gaztelugatxeko Doniene



Omako Basoa

ANIMAZIO JARDUERAK

Animazio taldeak hainbat ekintza proposatuko ditu, auzolandegiko partaideen eta auzolandegia hartuko duen komunitatearen arteko harremanak sendotzeko eta lanak garatuko diren ingurunea hobeto ezagutzeko. Bestalde, Euskadiko kultura eta ohiturak ezagutzeko lagungarriak izango dira.

Txangoak Bilbora eta Gipuzkoako kostaldera, bisita kulturalak, kirol-ekintzak, jolasak... antolatuko dira. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

Programa aurrerago zehaztuko da programa. Animazio taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak.



ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo-zakua (ez dago izararik)
- Burkoa (behar baduzu)
- Garbitasun pertsonaleko artikuluak
- Dutxarako eta igerilekurako toallak
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirola egitekoak
- Kapela eguzkitarako
- Eguzkitako krema
- Eguzkitako betaurrekoak
- Bainujantzia
- Txankletak
- Motxila txikia txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Parte-hartzaileek honako hauek eraman beharko dituzte auzolandegira:

- NAN edo atzerritza-txartela edo pasaporteak.
- Osasun-txartel indibiduala

AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA

Auzolandegiaren kokapena: Busturialdea-Urdaibai eskualdeko interes turistikoko puntu nagusietan (Gaztelugatxeko Doniene, Omako basoa, Gernikako Batzar Etxea...), toki guztiak Urdaibaiko Biosferaren erreserban kokatuak.

Ostatua: **Gautegiz Arteagako eskolan**, Mundakako itsasadarren ondoan, Busturialdea-Urdaibai eskualdean. Haur hezkuntzako eraikinean logela gisa 2 gune prestatuko dira; komunak eta dutxak bertan daude.

AUZOLANDEGIAN HASTEAK

Auzolandegia hasten den egunean izango da topaketa **Gautegiz Arteagan, 18:00etan, Udaletxean**.

Ordu horretarako iritsi ezin denak (betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio), aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

NOLA HELDU AUZOLANDEGIRA

[Gautegiz Arteagako \(Bizkaia\) kokapen mapa](#)

Loiukoa (Bilbo) da bertatik gertuen dagoen **nazioarteko aireportua**. Ordu erdiro dago aireportua eta Bilboko hiria lotzen dituen autobusa. **Bilbora** heltzerakoan, TERMIBUS geltokian Bilbotik Lekeitiora doan Bizkaibus konpainiako autobusa hartu, Gautegiz Arteagatik pasatzen dena.

Handik gertu, hiri garrantzitsuen artean Vitoria-Gasteiz eta Donostia (Frantziarekiko mugatik hurbil) daude.

AUZOLANDEGIAREN AMAIERA

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00ak eta 10:00ak bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak partaide bakoitzari istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguruia egingo dio.

Hala ere, gazte bakoitzak bere **osasun-txartel indibiduala** ekarri beharko du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA E-POSTA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel.: **945 01 95 01 – 945 01 95 36**
- E-posta: gazteria-auzolandegiak@euskadi.eus

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehen, auzolandegietako arauak ezagutzea komeni da. Ikusi www.gazteukera.euskadi.eus webgunean (Auzolandegiak – Ezaugarriak, kuotak eta arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia www.gazteukera.euskadi.eus webgunean dago (ikusi Auzolandegiak- Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).